

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

219n. zenbakia
bagilla 1997



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



MUNGIA'N JAIK: KEPA DEUNA
– BILLELA TORREA
(GAUR KULTUR ETXEA)
– ERROTEAREN UR-JAUZIA

ARTE ZAR BATEN GORABERAK

ERAIL

Árbol onetzaz goatuko naiz
bizirik nagon artian,
Berio Azpin dagon artiaz
Donostiyako partian;
onek babesa billatzen zuben
baserritarren artian,
pake santua ostu ziyoten
etxetxo batzun tartian,
arrezkerotik negar-malkuak
ikusten dira artian.

II

Lapur andiyak etorri ziran
emanaz fuerte ordena,
txikiziyua burututzeko
biar zuten ordu laurdena;
arboladiak bota zituzten
baserri inguru dena,
ipurditikan moztuta ere
bi anai artiarena,
dirugatikan xerri alenak!
ondata ziguten dena.

III

A ze pitxia zuten aurrian
etzitzayoten kontura,
Betiko Aitak egindakua
artista andiyen modura;
ondare gisa autatu dute
urte askoko moldura,
ajolagabe ezkaitez izan
gure Ingurun kontura,
biyotz-biyotzez maita ditzagun
Luna eta Ama Natura,

(1997-IV-25)

Joxe Inaxio Salaberria

Nun zagoz estaldurik,
iturrien sormena...
bizitzaren garra...?
Nun da jakituria,
oroiz goitik dagona,
Jaungoiko Bakarra...?

Zure itz indartsua
jabetasun osoaz
otska ibili zan;
lurraren jabea naz,
beste jaunik ez dago,
gizonen bizitzan.

Baiña zentzun bageak
egirik ez dau gura
gizonen artean;
arrokeriz jaiki da
zure aurka aupaka
dongakeriean.

Bizia geuria da...
arrokerizko itza
gizonen miñetan;
ausardikeri baltza
lotsa galduak dabiltz,
indarkerietan.

Eskubideen eskean,
zarata ta orroa,
au dok mallu otsa;
ez zana ta dan orri,
nork emon ete eutson
nortasun jabetza...?

"Ez dozu inor ilgo",
gizon gain otska dago
berezko indarrez,
leoiak ilko dira,
itzari erantzunez,
-parka- deadarrez.

PAULIN

ORDUAN ERRIA BETIKO GALDU DA

Ona erren Sizilia'ko olerkaria dan Ignazio Butitta'ren olerki gogoangarri bat:

KATEZ LOTU EGIZUE
ERRIA,
BILLUZTU EGIZUE;
AGOA ITXI EGIOZUE,
BAIÑA ERRIA ORAINDIÑO BIZI DA.
LAN-BAGE ITZI EGIZUE,
KENDU LATERRI-ARTERAKO AGIRIA,
KENDU JATEKO ORDUAN MAIA,

KENDU LO EGITEKO DAUAN OGEA,
BAIÑA ORAINDIÑO ABERATSA DA.
ERRIA
TXIRO ETA MORROI BIURTZEN DA
GURASOAKANDIK ETORPIDEZ
ARTU DAUAN IZKUNTZA
OSTUTEN DAUTSOENEAN.
ORDUAN BETIKO GALDU DA.

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

ARGIUNEAK

H'ari buruzko ikamika Mexico'n

- Ez al dute Euskera batuarik nai, ala?
 — Ez, txo, Gaztelera batua ez dute nai.
 — Auxe bai gauza polita. Segi, segi.
 — "I Congreso de la Lengua Española" egin dute.
 — Nun?
 — Mexico'ko Zacatecas errian.
 — Notzuk bitu dira?
 — Nobel saria irabazitako García Márquez ere bai.
 — Bera bakarririk?
 — Beste askoren artean an zegoen Camilo José Cela bera be.
 — Aza-kirten galanta ori.
 — Zuretzako izango da; baña, ainbat sari eder jaso dituz.
 — Bai, berak lotsagabe-lotsagabe eskatuta...
 — Alaz ere, joso dauz.
 — Eta, zer zan billera orren ardatza?
 —Gaztelera erreztea.
 — Orretarako, zer egin bear da?
 — Lenengo lana da, H'a kentzea.
 — Ori, ori. Nork du orrelako sentzuna?
 — García Márquez berberak ere bai eta berarekin beste askok; baña, Castilla'ko izkera errezteko ori ez da naikoa.
 — Zertzuk geiago bear dira?
 — J eta G, beti bakoitza bere soiñu bereziakin aoskatzea; B eta V berdin idaztea; Q eta C, K'ren soiñua dutenean, K'rekin idaztea...
 — Geure Erri-euskeraren antzera...?
 — Bai, alaxen da.
 — Eta?
 — Cervantes'en erritarrek esan dutenez, ori astekeria



izango litzake. "Ikasi dezatela. Geuk ere ikasi egin degu -ta".

— Orain 25 urterarte Euskera zaarrak, aurrerapen oiek denak eginda eukazan.

— Baña, iraultza egin bear zan, Paris 'en 1968 'an egin zanen atzera berreun urteko saltoa egin, eta Euskera H'ez josi gaztelera baño milla bider geiago; beste zailtasun geiago ipiñi eta "ikasi dezatela, geuk ere ikasi egin degu-ta" ...

— Bai, arranea! Eta, ikasten ez ba'dozu?


— Ez dezu sekulan Euskera Batuaren errape eman-korrera, ezpañik urbilduko.

— Sorgin txarren bat badogu Euskalerrian, ondo dau-den gauzak naaspildu eta ipurdiz gora jartzeko.

— Bai, orixe!

— Bai, ba, "gu oso aurrerakoiak gera eta zuek berriz, atzerakoiak ogeita bost urte auetan, atzera begira zaude-tenok".

Palermo'ko Gongotzaia Auzitegira



Palermo ori Sizilia'ko Uri nagusia al da?

— Bai, ala da. Sizilia'k ipar-aldera aurpegi bat dau eta une orren erdi—aldean dago Palermo.

— Droga eta indarkeri guzien aitz-zuloa... Orretan al dago Gongotzaia sartuta?

— Ez, ez; ez dau gauza orregaz ezer ikusirik.

— Zeretan dauko ba zer ikusia?

— Palermo'tik amar kilometrora dago Monreal ize-neko auzo bat, eliza nagusi edo katedral bereizi-bereizi batekin eta a konponteko erabilli diran diruaz dau zer ikusia.

— Zer eleiza da ba?

— Erantzun aurretik kontutxu bat esango deutzut: Orain dala berrogei urte Erroma 'n nengoen ikaskizunak

ALBISTEAK

egiten Lateran'eko Ikastola Nagusian. Bigarren urtea eta aizkena. Andik urten baño lenago, ona izango zala Italia'ko ego-alderuntz bueltatxo bat egitea, pentsatu neban. Baita, nerekin ikasketak egiten ari zan Tolosa'ko Jesus Mari'ri, esan be.

—Ikasketak egiteko era ederra...!

—Ez da ain txarra, be. Don Joxemiel'ek esaten euskun, oiñekin ikasi bear zala. Eta, aren esanetara makurtu genduan geure burua. Trena artun Erroma'n eta Italia egoaldeko "zapata"-muturreraiño; andik, itsasoa igaro trenetik irten bank, eta Sizilia'ko Mesina'ra.

—Erri on Sizilia'ko ekialdeko muturrean dago.

—Bigaramonean andik Catania'ra, Etna sumendia begistatu... eta berriro Mesina'ra. Iruugarren egunean, Palermo'ra...

—Eta, Palermo'ko Monreal ori?

—Palermo ikusteko taxi artun genduan, eta, gu ezjakiñean gendozala, Monreal'era eraman ginduzen. Aozabalik gelditu nintzan erriaren izena ikustean.

—Zergaitik?

—Ni Deba'ko Monreal'etik joan nintzan Erroma'ra eta Palermo'raiño joan bear izan neban, berriro neure erriaren izena ikusteko.

—Baña, Deba ez da Monreal.

—Arrazoa daukazu, Deba ez da Monreal; Deba ibaia da eta Monreal ibai orren ertzean jasotako erria.

—Zer diñozu?

—Itziar'en erri bat sortu zanean, artean ez zegoen erririk, ballara bat baizik, orduan Monreal ipiñi eutsoen erriari izen. Andik berrogeita amar urtera, itziartarrek nai izan eben, Itziar'ko Monreal ori, Deba'ko ibai-ertzeraitxi. Orrela, Itziar baillarako Monreal. Deba ibaiko Monreal biurtu zan.

—Zergaitik aldaketa ori?

—Itxasotik bizi ziralako eta "porque estaban alongados del agua" itxasotik urrun zeudelako.

—Eta, Palermo'ko Monreal a, zer?

—Zoragarritzko eleizea dabela: txundituta, zoratuta, begi-zabalik galditu giñan, aren bamua ikustean...

—Zer dauko, ba?

—Biblia osoaren irudiak, mosaiko ede-ederrez egiñak, eleiz barruko iru aldamenetan. Aurrean, berriz, aldara beteko Pantokrator bat.

—Zer da Pantokrator ori?

—Asiera-asierako eleizetako aldaretan agerten zan Jesukristo'ren mosaikoz egiñiko irudi aundi edema.

—Eta, Gongotzaiak lapurretan egin dau, eleiza ori dala-ta?

—Salvatore Casisa, 76 urtekoa, orixen da Gongo-

tzaia. Eta, erasotzen dautsena au da: Legez kontrako komisioak artu ebazala eleiza on berriztatzen ari izan ziran enpresetatik.

—Eta, defensakoek zer diñoie.

—Auzi gurtia indarge utzi bear dala, nulo deklaratu bear dala.

Gernika eta Alemania

—Irurogei urte erre zuenetik.


—Urteak aun-era doaz "Condor" egazkiñek erre eta txikitu zuenetik onera.

—Baña, okerkeri orren jabe iñor egin ez nai...

—Bai, Jose Antonio Aguirre eta bere gudariak ziran errudunak. Amabost egunez egon ziran España Azul'eko irratigurtiek orixe esaten. Berdin, aldizkariak ere.



Gernika erretea.



Alenian a'ko Lendakariaa•en ordeskoa

- Makiña batek sinistu ere bai.
 - Baña, apurka -apurka, lañopetik egiaren eguzkia agertu zan... Eta, gaur, iñuxenteren batek ez ba'da, ez du iñork zalantzarik...
 - Alemania'ko agintariak beurok be, aitortzen duce...
 - Jesus Arana, zumarratar apaizak, makiña bat pauso eman ebazan, Alemania'n bezala España'n ere, arazo au aurrera eramateko...
 - Orduan ez eban ezer lortu.
 - Ango eta emento izan zan eta, bera ilda gero, here lanak frutua emon dau...
 - Liburua be atera eban bere joan -etorrien xeetasun guziekin.
 - Liburua argira atara eta berbera il. Pozik egongo zan egoera au ikustean: azkenik Alemaniak eskua luzatu dau barkamena eskatzen.
 - Zenbait oker, aizkenerako zuzendu egiten dira. Amen be, barkamena eskatu, barkamena emon eta bakea danontzat.
- Gauza askorentzako, eredu.

Ustegabeko Peru

- Katekista ari zan berbetan amaika urteko neska-mutikoeri.

—Zertaz?

- Ba, gurasoak zenbat neke jaso bear izaten dabezan, bizitzan eurok aun-era eramateko.

- Bai, ez diraz neke gutxi besteari, aopekotan, naiz katekistak entzun, zer esan zion?

– Zer?

- Gu ekartzeko ez zuten ain gaizki pasatu. Eta, guri baimenik eskatu gabe.

– Eta?

- Neskato batek: -"Gure ama txarra da"- "Zergaitik diozu on?" – "Meriendarik ez ditelako ekarri"...

– Gurasoei ez diete zorrik?

- Alan dirudi: Eurok euren gogoia bete eben eta euren atsegiña billatu, beuren seme -alabak sortzeko... Eta, kito.

—Ez dozak eurok makalak!

- Uste dot, gurasoek, alegin guztiak eginda be, eurok



zaintzen eta ezitzen, alan be, ez dautsela eskerrik emoten: gu mundura ekarri gaituzte, eta geure serbitsuan egotea da euren eginbearra...

- Aizu, txo, orren antzera jokatzen dabe gazteak be euron gurasoaz: ez dabe eurengatik ezer egiten, eta konbeni ba'zaie, or lagatzen dabez baztar batean... Batzuek bakarrik, ez.

– Bai, zoritxarrez ala da. Beste aldetik arazoa begiratu eskeroz, berriz, laugarren Agindurik ez dute sekulan ikasi, ez bait dabe Jainkoaren berririk entzun ez etxean ez eskolan ez gizartean... Ez iñun.

- Elizara ez dira etortzen...

— Alan esaten eutson katekistari beste umetxo batek: Ni ezin neiteke meztatara etorri, gurasoek ogetik oso berandu jeikitzen diralako.

- Or biltzen dira ari-mutur guztiak.

– Gaurko gure elkarteak, geienetan, or dabiltz, iñork ez diola lagun -urkoari maitasunik agertzen, norbere buruari baño...

– Ronaldo eta Ronaldina nortzuk diran, biberoia artzen daben umetxoek ere badakite; baña, Jesus noiz il zan (T.B. galderak), askok ez dakite.

– Ori lenago be gertatzen zan: Txarteleta zanean Pazkokoia betetzeko, apaizak galdetu zion mutillari: -"Noiz il zan Jesus?" – "Ez dakit, jauna" – "Etxera, txartelik gabe". Amak on entzun zuanean, etorri zan protestaka apaizarengana: "Jauna, berorrek ez dio nere semeari txartelik eman" — "Nola emango nionan ba. Jesukristo noiz il dan ez ba'daki" – "Gaixo al zegon, ala?".

Manterolaren ipuitxoak

– Matsondo ederra eukan batek bere etxe -atarian eta, bekaitzez, auzoko Txilibristo'k adar guztiak ebagi eutsozan.

— Gaiztoa mutilla!

– Ondorengo urte aretan, amar bidar mats-mordo geiago eta ederragoak.


– Neuk esango deutsut beste bat: Bein, Oto eta Pototo bidean doiazala, intxaur eder bat egoan bide-bazterrean. Oto'k ikusi eta Pototo'k artun.

– Eztabaida.

– Jerontxio etorren bidean eta arengana joan ziran eztabaida agertzeko. Jerontxiok: -Ara, Oto, zeuk ikusi dozun lenen itxaurrá eta zuretzat ezal eder au; zuk, berriz, Pototo, artun egin dozu lenen; zuretzako beste azal eder au. — Eta makiñak? — Orrek neuretzat, epailanen sari.

ALBISTEAK

Africa'ko gerrak eta umetxoak



— Mixioetako aldizkari batean irakurri dot.

—Zer irakurri dozu?

— 250.000 gaztetxo daudela gerra armatuetan.

— Bañan, umetxo batek zer egin leza-ke...

—Eurok ei dira aginduak obeto

betetzen dabezanak eta arriskurik ikusten ez dabenak.

—Merkeak izango dira...

—Merkeak eta onak; baita kupirik gabeak tiro bat iñori emoteko, baita bere gurasoak ba'dira be.

—Zerk bultzatzen dau gaztetxo edo aur bat burrukan parte artzeko?

—Lenengo ta bat, goseak: Armetan dabillega ez zako jakirik paltako. Bigarren, arma automatiko arin bat eskuetan izateak.



—Indarra eta inportantzia emango deutso; alkarri erasoka dabilzan errietan, areago.

—Nortzuk dabilta bide orretatik?


—Bakoitza bere aldetik doazen gurasoen semeak eta kale gorrian galditzen diran umezurtzak.

- Ori gogorra da.

—Zenbaitetan, baztarretan arrapatutakoak ere bai.

—Izan be, indarkeri asko jasotzen dabe aurrek, bai sexokerietan, bai Ian gogor-merkeetan be...

Zalapartak berriro Elizaren inguruan



Euskaldunek eskatzen dabena da, kristiñauk Euskalerrian batasun bat izatea.

—Ez dago batasunik, ala?

—Bilbo eta Gazteiz'ko Elizarrutiak Burgos'ekin; Donostiakoa, berriz, Iruña'rekin. Iruña'k berekin Jaca eta Calahorra dauz, giputxekin batera.

—Noizkoa da naaste pout ori?

— Erromatarrek egin zuten lenengo zatiketa: Bizkaia eta Araba, Cluni (Burgos) departamentura; Gipuzkoa eta Iruña, Cesaraugusta'ra (Zaragoza)...

—Dirau oraindik zatiketa arek? Eta, ifar-aldeko euskaldunak?

—Aien zatiketa aurreragokoa da: erromatarrek Pirenee-mendien gallurrean imiñi zuten euskaldunen arteko muga...

—Okerkeri zaarrak dira. Ez al da bidezkoa ego-aldeko euskaldunen Elizarrutiak alkartuta izatea?

—Zuzentasunik iñun ba'dago, orra or justizi-arazo bat. Bañan, Aznar jaunari, orrek, biboteak zutitu egiten doutsoz. Bilturtia da, gizarajoa; mamuak ikusten dauz oge-azpian eta or joan zako Lajos Kada, Nunzioa, lobelarrak emoten, bibotexuak trankiltzeko.

—Bi milla urtean lortu ez ba' dogu, noiz elduko gara elmuga orretara?

—Begizkoa egingo euskun sorgiñen batek...

BARTOLO ARROPAINGO

EGOERA OLDARKORRA

Ondiño aldi asko ez dala, EGOERA KOROPILLA-TSUA izendatuiko idaz-lan baten, adi-erazi genduzan Legebiltzarrean abertzaleak goitu bear dabezan eragozpenak, aurkako alderdiagaz darabillezan eztabaidetan.

Orduan, azkenengo auteskundetean, dalako CESID orrek isilean daukazan ainbeste ingi edo agiri ta argibideak... zan gaia.

Laterriko alderdi espainiar aundienak, PP eta PSOE, autaldian gai onetan arerio amorrotuak ziran. Batek sakonki aztertu bear zala errudunak agertun arte ta besteak, barriz, izkutuko auzia dala eta ezin leitekela esaten eben.

Bahia eusko alderdi abertzaleak, Lasa eta Zabala (baita beste batzuenak) auziak argitzeko laguntza eskatu ebenean, alderdi biok, bai PP bai PSOE bat egiñik, ez eutsien jaramon egin eta or geratu ziran, ain argi dagozan gaiak, zeatz-meatz erabagi bearrean, illunpean estalduta. Geroago, PP Jaurlaritzan dagola, epaillei emon eutsezan 17 agiritatik 13, euren artezkuntzak egiteko. Agiri onek oso ongarriak dira, ta lenengo argitasun eta ondorioak, agian, agertzen asi dira.

Oraintsu be, sarrasketa edo iltze izugarri bat ikusi al izan dogu gure errian. Gomez Elozegi jauna gizon zintzo ta on-erexi bat zana, maltzurki, atzetik eta azpikeriz, lepoazurrean tirokatuta jausi zan. Gaiztakeri au iñork gaiztetsi ta urrikaritzen ba'da, eusko abertzaletasun erkal-zale edo demokrata da.

Gertaera au dala-ta, itxura txarrezko jarrerak sortu dira. Jakiña da eginkizun txar batek, beste bat txarra dana, ez daula legezko egiten. Beraz, iltzaillea dan Fernando Elejalde atxilotuak oiñaze edo tortura ta tratu txarrak artu izan ba'dauz, ez dira giza-ezkubideak bete; ta on argitzeko irrat-ikuskin edo telebistan egindako eztabaida baten aukera izan genduan.

Mayor Oreja Barne ministroa eta Gonzalez Txabarri jauna, EAJ'ko ordezkaria, auzi oneri buruz odol-berozko itz-burruka baten ari ziran.

Leen CESID gaian ikusi dogun bezela, orain be, PP eta PSOE alderdi espainiar aundienak baita besteak (IU izan ezik) alkarturik Oreja jaunaren aide agertu ziran, eusko abertzaletasunaren aurka, joera geroago ta nabariago adieraziz.

Indarkeriari buruz, ba-dirudi alderdi espainiarrak oraintxe iñoiz baiño arduratuago dagozala bakea lortzeko. Ortarako, euren ustez, demokrata guztiok alkarturik jokatutako bearko geunke. Bakea lortzeko, ez dira alkar-izketaren aldekoak. talde aundi ta sendo bat egin indarkerizale guztiak bastertuz, ei da onena. Au dala-ta, agian, eusko sozialistak lendakariari idazlan bat bialdu dautsoe indarkeriari buruzko egin-bide barriak jartzeko adieraziz.

Onezaz, Garaikoetxea jaunak egunkari baten egiñiko iruzkin edo azalpen bat irakurri neban. Bere ustez, argi ta garbi dagola, iñoan, alderdi espainiarrak talde indartsu bat,

eusko abertzaletasunaren aurka antolatzeko naian ari dirala.

Izan be, leen aitatu doguzan (CESID, Gomez Elozegi-ren Sarrasketa, Elejalde iltzaillearen diralako oiñazeak) eta oraintsuko beste goraberak, alderdi espainiar artean ^{sortu} arazi daben jokaera ikusirik, ba-dirudi Garaikoetxea jaunaren iritzia ondo oiñarrituta dagola.

Arzalluz jauna be, Garaikoetxea'kin bat etorri da. Egun batzuk geroago, egunkari berean, gai oneri buruz berak egindako iruzkiña antzekua da. Bere aburuz, Aznar jaunaren inguruan ba-dagoz batzuk, aundia ez dan indarkeriren bat onartu ta jasan leikiela, eusko abertzaletasuna zatituta ikusteko gauza ba'da. Oneri lotuta dagon zertxobait be esan dau. Aberri Eguna ospatzeko Bilbo'n itzaldian, Arzalluz ber-berak, esan euskun Madril'eri eusko abertzaletasuna dala keskatu ta gogait egiten dautsoena, ez ETA.

Gonzalez jaunak be, ba-dirudi bere uts-egite edo berekiko frustatzioa erri-arazo edo politikara eruatzen daula, PSOE'ri jarrera itsusi baten jarriz, batez be PSOE-EE'ri Euskadi'n eskubide edo almen zeozer ba'dauko beintzat. Gaurko egunean orixe da, ta ez besterik, gure gaitetan egiten dauna. Euskadi'ko zergak eta bere ordain-bearra edo kupo deritxon buruz, lotsagarritzko eztabaidan iñolako zio barik zaparrasta baten sartu dira.

UA'ko buru dan Moskera jauna be, oizko bezela, minez parra-parra iritziak agertzen ibilli da. Bere gurari nabarmena, oso garbi esana, onako au da: urrengo Euskadi'ko Jaurlaritza, eusko-abertzale ez diran alderdiagaz osatu izan bear da. Agerpena egin eta lasai geratuko zala uste dogu.

Arrunteko lekua ia bete dogu, ta beste jokabide ta jarduerak ez doguz aitatu. Aurreko idaz-lan bateri. Egoera korapillotsua izendatu ba'geutson, gaurko giroa ikusirik oneri, lojikoki, oldarkorra deitu bearrean aurkitu gara.

Ez dago on-uts dan gizakirik. Danok daukaguz gauza onak eta txarrak be bai. Bidezko da, beraz, onak artu ta erabiltzea ugaritzeko ta txarrak, barriz, gogoz ezetsiteko.

Baiña arazo ta gauza guztiak ez dira bardiñak. Batzuk objektibo edo izanezkoak beti era berean (onak edo txarrak) agertzen diranak. Beste batzuk, ostera, subjektibo edo norberarenak izanik, batzuk ontzat artzen dabezala ta beste batzuk txartzaz: eta or dago koskal.

Ba-dagoz eusko-abertzelak bananduta ta kirrimarretan ikustean, pozten diranak; asko dira, baita, min aundiagaz eta itunki, ikusten dabezanak.

Eusko atxilotuak dirala-ta be, iritziak zatituta dagoz: aide batetik beren errietan eta, al ba'da, etxe inguruan egon bear dirala diñoenak; eta bestetik, urriñago ta ainbat obeto ikusi gura dabezanak.

Bein edo bein, aukera izango ete dogu, Egoera baketsu ta atsegingarria izen-burutzat idaz-lan bateri jartzeko?

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER

EUSKALDUN ERROMATAR ALDIA (III)

PIRENEE ETA AKITANIA'KO ARLOSAK

—Erroma'k Italia osoan luzatu zitun bere bideak. Mediterraneo itxasoaren ertzetik zijoan Via Aurelia, Erroma'tik Tarragona'raño eltzen zana. Hispania'ra orduko bide on-en lerro bat ateratzen zan Narboana'tik Toulous'era etae andik Burdeos'era. Bide orretatik sartu ziran Akitania'ko euskal errira erromatarrek. Lerro orrek bazitun besoak egoalderuntz, Pirenee mendietan zear, Tarragona'tik Bribiesca'ra zijoan bideekin bat egiteko. Era orretara Akitania lotuta zegoen aide guztietatik eta bertarako ate guztiak zeuden zabalik...

—Orduan, on ala ba'da, edozein sartu zizekean barru artan...

—Orregaitik jaso zituzten erromatarrek euren "oppida" izeneko muño-gañetako gaztelu -sail bat. Baña, emen oietako "oppida" bakar bat izango degu begien aurrean: Lugdunum Convenarum, gaur eguneko St. Bertrand de Comminges. Euskalerrira'ren egoaldean ikusi ditugu makiña bat jainkoen arlosak; inguru onetan ere badaude bat baño geiago erromatarren eta euskaldunen jainkoeri eskeiñiak. Pare orretako Pirenee gallurrean degu Garona ibaiaren sorburua, andik Burdeos'era dijoana. Gallur oietan sortzen da baita ere Adur ibaia, Baiona'ko itxasoan murgiltzandana.

— Or al daude arlosa oiek?

—Ibai oien iturburu eta ingumarietan daude euskaldun jainko txikiz betetako arlosak. Latiñez idatzita egon arren, euren jainkoen izenak euskaldunak dira. Eta ez dira ez nolanaiko jakinkoak; geure euskaldun buruetan oraindik orain bizirik zirauten. Ona zer zion D. Joxe Miguel Barandiaran'eri 1943'garren urtean 90 urteko agure batek:

"Gizonak badu lur bat bertan bizitzeko. Baña, andik aruntz ez du ez aalmenik, ez aalik. Odeiak gizonaren baime nik gabe dabilta gaiñetik. Lurazpiko eremuetan, berriz, deabruak dira nagusi. Deabruak lurgañera ateratzen dira animaliez jantzita eta animalia gisan. Bei-gorri, zaldi-xuri, aai eta suge...".

—Ori nere amamak ere sinisten zuen...

—Beigorri, zaldixuri, zezengorri, aari, aker, asto eta abar dira animalia itxuran munduan dabiltazen sorgin eta deabruak, euskaldun zaarren buruen neurrian... Orrelako siniskeri asko bildu dira gure artean, batez ere, Mari sorgin guztien erregiñari buruzkoak. Izen oiek berberak agertzen dira Pirenee mendiko arlosetan...

—Esan eiguzu izan batzuek.

—Ona zerrenda bat:

ANIMALIAK

ARITXO DEO (Adur ibaiaren iturburuan): Aritxo jainkoari eskeiñia.

MARTI ARIXONI: Marte Aritxo onari eskeiñia. Marte eta Aritxo alkartuta. Izan ere, asieran, Marte bera ere Aritxo zan.

ASTO ILLUNO DEO: Asto Illuna jainkoari eskeiñia. Aritxo'ren arlosatik gertu.



Arfosa: "Asco Illnro Deo ..."

BEIGORRITXO DEO (BEICORRIXO): Beigorri jainkoari eskeiñia. Garona ibaiaren iturburuan. Andik beera badaude arlosa geiago, baña izena aldatzen dijoo: Baigorriso, Baiorixo, Baigorisco, Baigorrix, Buacorrrix, Buaiorix... Bai, Bai aldatzen da, euskeraren legera: au gertatzen da bi itz alkatzen diranean: Maite + kendu = Maitakunde. E biurtu da A.

AHER BELSTE DEO: Aker Beltza jainkoari. Bagneres de Luchon inguruan. H zan K latiñentzeko.

ABELIONI DEO: Abel On jainkoari. Abel itza berdin esan nai du Zezen ala Bei, eta Azkue'k dionez, Auntz, Ardi eta Ganadu besterik gabe. Dana dala, Ganadu Ona.

ABERRI DEO: Abel (gorri) jainkoari. Arixo eta Asto Illuno'tik gertu.

ERGE DEO: Ergi jainkoari. Idixko edo idi gaztaeri esaten zaio Ergi.

IDIATE DEO: Idiate jainkoari. Ate edo Athe, talde ere esan nai du: Idi-talde, ar-talde bezela.

ELE DEO: Ele jainkoari. Ele da ganadu taldea. Milia Lasurko olerkian easten da: "Aita jaunak ereisten dau elia / amandreak apaintzen obia".

EDELATI DEO: Zaldi-talde jainkoari. Ed-ele-ate: aurreko emen aitatutako bi jainkoetan agertzen dira Ele eta Ate. Ede, zaldiari aoan ipintzen zion burnia de Ede. Beraz zaldi talde au ezitako zaldien taldea da.

BASAERTE DEO: Basurde jainkoari. Arrizko aldara onek basurde bat du korrika, aldamen batean. St. Bertrand de Comminges alboan dago Gourdan erria eta onen auzo bat da Basert. Narotasun eta ugaritasunaren irudia da basurdea.

BOCCO HERAUSONI DEO: Heraus On jainkoari. Eraus (Zuberoa'n) txerr-arra da... Basurdearen antzeko narotasunean. Bocco zer da ez dakit.

ERDIT ETA ERDITSE DEO: Erditze jainkoari. Erditze ona artzai eta unai guztien aizken elburua da.

LEERENO DEO: Lekera On jainkoari... Animalien erne-

aziakin zer ikusia du. Ardiegia izena duen eliza batean daude amalau aldiz. Bostetan, Marte'rekin batera (Arixo berbera)...

ILLARGIA

ILLIXONI DEO: Illargitxo Ona jainkoari. (Luchon eta Bagneres de Luchon'en arlosa asko billatu zituzten). Luchon erriaren benetako izena llixon da.

ILLUNO DEO: Illuna jainkoari. Illargiaren illun aldiko jainkoari.

ILLUMBERRI DEO: Illun Berri jainkoari: Illunetik illargi ben-ira.



GARONA-GOIA "Peyresourde" BIDEA. LUCHON

MENDIAK

GARRI DEO: Gar jainkoari: Mendi gallurreko jainkoari (Gar-mendia, Gar-ate, Gar-aikoetxea...).

CARRI DEO: Aurrekoaren berdiña. C eta G nasten eta alkar illuntzen dute.

MENDIKO OLA-GIZONAK

AGEIO DEO: Pagani Ferrarienses: Agea jainkoari baserriko olagizonek. Agea itzak bi esan-nai ditu: arboletatik emaitzak botatzeko egur luzea eta oletan erabiltzen dan porra edo matxinoa.

ALAR DEO: Alar jainkoari. (Alar-be = ezigabeko). Eziketaren jainkoari.

ALAR DOSTO DEO: Alar totso jainkoari (D = T) Dosto=Totso. Agoa da labetatik ateratzen dan burni sail eta Totxo ago orren erdia. Alar=eziketa. Izan ere oletako matxinoak totxoaren burnia ezitzen du, animaliak ezitzen diran antzera... Totxo ezitzen duen jainkoari.

BESTERIK

LAKAE DEAE: Laka jainkosari, (A'kin amaitzen diran itzak emeak bait dira latinez). Laka itzak bi esan-nai ditu:

gurutzebide eta uraren zurrumbilloa. Garona ibaira dijoazen bi errekatxo alkartzen diran tokian zegoen aldara bat "Consecrani'ek jasota. Consecrani ziran jainko baten serbitzariek. Laka onek bazitun bere serbitzariek ere.

ERROMATARREN PANTEOIKO JAINKOAK

— Emen ere ba al dira orrelakoak?

— Bai, Euskalerrri osoan bezela emen ere erromatarrek ekarri zituzten euren jainkoak. Oien artean daude Jupiter, Marte, Mitra, Mater Magna, Sol Invicto, Apolo, Minerva, Tutela, Silvino, Diana, Ninfae, Dei Manes, Hercules...

— Mitra on lenago ere esanda daukazu.

— Sol Invicto Mitra'ren jaiera Ekialdetik ekarri zuten Erroma'ra eta andik gudariak bazter gurtietara zabaldu. Leize zuloetan zituen bere irudiak eta aldarak zezena gañean iltzeko. Berak menperatzen zuen illuna, berak argia sortzen eta berak argitzen zuen eguzkia. Urarekin zer-ikusi ere bazuen. Eguzkiaren argia eta ura, orra artzaiantzako bi gauza bearrezko. Mitra oven irudi bat Pireneetako leize baten atakan lurperatuta aurkitu zuten, 1.288 metrotik gora dagoen St-Lary-Sulan auzoan. Koba orrek ura Bario eta elizatxo bat dauka bere gañen jasota, ondorengo kristauek egia.

GIZAKIEN EUSKAL IZENAK

— Atal au amaitzeko ona arlosa oietan aurkitzen diran zenbait gizakien euskal izen:

OSSON PRIAMI FILIUS: Otso-on Priamoren semea.

HARBELEX HARSI FILIUS: Arbel-leize Artza'ren semea.

ANDERE ANDERESENI: Andere Anderesena.

ANDUS, ANDOSSO (Andotxo), ANDOXUS (Andotxo)

ANDEI DEAE: Jainkosa Aundiari.

ILUMBERRIXO ANDEREXO: Ilunberritxo Anderetxo.


CISON: Gizon.

LEXI DEO: Leizearen jainkoari.

Eta beste erdi-ipurdiko itz auk:

XUBAN, ULBELTESO, USECE, TULLONIO eta Araba eta Naparroa'n lenago ikusiak.

ARRINDA'TAR ANES



~
EGUZKI LAINOTUA
(3N. SARIA)

Gaur kontsolau nozu, eguzkia; biar bere etorri zakidaz kontsolau naitean.

Eguerdiko amabi t'erdietan Ekhi (bestaldean idazten daben letxe) oetik jagi-barri jaku; sofán etzun eta telebisiñoa ikusteari daragoio. Amazortzi urteko morrosko luzanga onek eskolara joateari itzi dautso, ta ogibiderik ikasten jarduteko ez gogo, ez asmorik. Ule luze ta arrotua, ez da bere jazkeraren gorabeeran ezer asko arduratuten; Eguzki osterá, here neba baiño laupabost urte zaaragoa (are zaaragoa dirudi) garrantzi andiko norbaitegaz geratuko bai'litzan, pinpirin-pinpirin atondu da ta Ekhitxu'ri "banoia" laburra badirautso; Mutillak begirakuna apur bat altxa dau ta ez dau tautik esan; Ori bai, bere arretatxuak darabilen kosmetikuen usain sarkorra surzuloetarik jasan dau, ta muxin-keiñu bat egin be. Mutil gaztea alperkerian diarduan bitartean, neskatoa karrikarik karrika ibilten da; Beti gizonezkoren batek otsegiten dautsanean urteten dau; baiña bere nebak ez bezala, Eguzki'k etxera dirua ekarten dau. Nundik lortuko ote?

Oneek gotzontxu biok "eguzki" izena eukiagatik, eguzkia gitxitan sartuten da zorigeiztoko etse orretara. Lantegiai darien keiak arnastetuka ipiñi dauz bederatzigarren bizitzako gizagaixook, eta oneek bizi direan amasei oiñeko dorretzar itzel orren leioak lurrinduten diñardu.

Ekhi bakarrik geratu jaku etxean. Bere gurasoen logelarantza abiatu da; arasea edegi ta aitamai kajoi batzuk arakatu dautsez. Nundik-edo-andik dirukopurutxua polito batu, ta kalera joan da tximistak ataraten, atea giltzaz itxi barik. "Lapurak gurera sartuko ba'litzakuz, zer ostuko leuskigue?", diño Ekhi'k here baitan.

Tartetxu bat belutxuago, emakuma zaartu xamarrá etxeratu, ta "danba" atea zarratu dau. Etxean alerik ikusi ez, eta sukaldeko ozkaillura abiatu da; edontzi bat ardaoz bete ta zanga-zanga iruntsi dau. Itxurak diranez naikoa ez deritxo ta salara jo dau (jangelea ezin esan, sendi apal onen jangelea suton-

doa da-ta; egongelea be nekez, egoteko tokirik ez dabe-ta)... Ikustirratia ta alkitxu bi-edo...

Salako arasatik bonbilla koñak-a artu ta edontzia bete-edo egin dautsu... Baso bat koñak atondu dau, astiro-astiro... Zurrutada batez ez dau edan orain-goan... Baiña aurrez be ez dauz bear izan. Lokartzen asia da, baiña bat-batean itzartu ta bazkaria gertuteari emon dautso.

Ez da oraindiño ordubete iraun here senarra bizitokira itzuli danean... Oneri be mando bat lurrera botatzeko aiñako sundea dario agotik... Itsason-tziak lez zabuka, sukaldeko alkitxu batean jesarri jaku.

—Zer, Marixa? Ez al jaukanagu ezer bazkaltzeko?

—Orain be i beti lez itxura edarrean etxeratu az... Euk emongo deusok gure poxpolintxuari ikasbide polita!

— Poxpolintxuok! Zorria baiño alperragoak dozana biok!

—Eu bai alperra! Ez gero besteokaitik txarto esaka ibilli! Zeuekaz ibilli bearko dot bai oindiño etxegarbiketán. Alper-taldea bikaiña egokitu jat neurean... I osterá lanik ez, ta lan billa ibilli bearrean, edari-etxeetako mama gozoa iruntsitan gau-ta-egun... Zeuekaz nora? Nora, e, esaistak!.

Giroa berotzen asia da, etxe onetan oi danez, eta gitxi irudituko jatzue-ta, ara or zarata itzela ateko sarraillan... Azkenean, kostata, Ekhi, etxeko tatana sartu egin da; ibillera bitxia, bai orixe... Surrari bein-eta-barriz zirikatzen dautsa, zerbait ausnartu bai'laun; begirakuna be ez dauko berak euki daroana, betikoa, berezkoa... Begi-ezkelarenagaz antz andia dau.

Mutil errukarria sukaldeko erratza zapaldu ta laprast eginda, ia-ia zolura jausi zan. Bere amak begirakun sarkor, zorrotz ete zamaikorra egin dautso semetxuari; aita barriz jabetu be egin ez dala-koan gagoz.

Jarri dira irurok maira ta txilistak bazkaltzen asi... Prontxio'k eta Marixa'k botilla ardao baltza beren ondoan, edo urriñegi ez beintzat, eta mutillari ura ardaoagaz nastauta imiñi dautsoe.

—Ez, ez, gaur ura edan gura dot, diño Ekhi'k izututa.

—Bai, obe egingo euke kalean be ura edango ba'au... An atxur galanta atrapau ta emen koittadua-rena egiten, diñotso zakar-zakar Prontxio'k, bere aitak.

Anartean, Marixa, azpillai begira ari jakan, gizon-zeko biai arreta emon barik; tupustean, here senar Prontxio'ri badirautso:

—Ik be ez daukok bada alan berba egiteko arrazoi askorik.

Egunero, egunean-egunean, eztabaidaren bat sortuten da Arriaga'tarrenean; au dala edo bestea dala, azken batean, beren bizitza zital eta kaxkarra dala-ta, beti ibiltzen jatzuz Arriaga'tarrak alkarren mokoka, ernegatuta ta amorruez, alkarrekaz asarrerik bal-tzenaz diñarduelarik.

Areek ikertzera doan edonor, bereala oartuko da etxe artan poza, alaitasuna ta alkartasuna eskatutea, astoari konfitteak botatzea lez dala. Egunen baten, on dana konpondu eitekean?

Batzuk diñoenaz, arazorik latzenek be euren askabidea badauka, nai-ta zenbaitetan, edo-ta asko-txutan, on eziña iruditu.

Orain ixiltasuna nagositu da otordua egiten dabilien sendiarengan, eta norbaitek giro jasangatx a austearren badiño:

— Ta Eguzki? — itaun dagi Prontxio'k, etxeko nagusiak-edo. Ziurretik gaur be ez dok etorriko... Ez, ez jatorrak... Gaur ba, betiko modura, eukiko jok ark egitekoren bat...-darantzuiio Marixa'k, Ekhi'k, lotsabako xamarra izanagatik, bere aitari ez leuskiota ikarik egingo.

Ekhi lurrera hegira lotu da lotsaturik bai'legoan; negar-anpuluren bat urten jako, dana dala mutil minbera baita... Arri ta zur dago, ta badiño here baitan; "Arritzekoa, arritzekoa, danak dakie Eguzki'-ren ibilleren barri, gure aitak izan ezik".

Bitartean mutikoari zandutako here aitita-ama-men gomuta etorri jako; "Ez zirean ez eskolara joango, baiña bizitzen baekian. "Negar-antzean bal-koira urten da. "areek euskerea, erlejiñoa, aberria... Zelanbesteko euskarria eukiten ekien, eta arrebak eta aitamak?" Egoera jasaneziña gertau jako Ekhi'-ri.

Konturatu daneko ama an dauko; "Aurrera egin-go joagu zela-ala, ikusiko dok, laztana...".

Ortik oso urrin barik, Eguzki ezezagun baten berebillera igon da ta badoia...

ETXABURUA TA AGIRRE'tar ASIER

>: >: >:



Eusko Jaurlaritzaren Laguntzaz.

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEAK'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskura-tzeko urea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dira-la idatzita. Txartel on sartu karta-azal batean eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreátegi, 14, 2^o, eskioia. 48001 BILBAO

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozen guztioi.

BIZKAI'KO ESKUALDEA (eta II)

ENKARTERRIAK

Enkarterriak jatorri aindikoak dira kondaira aldetik. Ortik dator batez be lur onen berezitasuna, lutelesti ta ekonomia aldetik.

Bizkaiko sartaldean datza. Bere lurrari bagirutzen badautsagu zimurtsua ta menditsua da. Ortik ango bideak Bizkaiko biurrenak izatea. Ordunteko mendiak ego-sartaldetik ipar-sortaldera doaz, eta mendi-kate onexek banatzen ditu Bizkaia eta Burgos. Mendirik garaienak Solana (1335) eta Kolitsa (874) dira. Badira garrantzia lortu dabean best mendixka batzuk ere: Gordexola mendi-katea, Triano mendiak, Sopena, Avellaneda, Castro, Ranero eta Mazo. Azken iru oneik Santander'eko mugan dagoz.

Kadagua da ibairik aundiena. Ordunte eta Gordexola-ren urak artzen ditu. Balmaseda, Aranguren eta Sodupe, Kadagua ondoan dagoz.

Eskualde onek amar erri artzen dauz: Karrantza, Sopena, Truzios, Arzentaletas, Lanestosa, Zalla, Güeñes, Gordexola, Balmaseda eta Galdames.

Biztanle gitxi dau eta nekazaritza bizi da geien bat. Baiña, baserrilur txikiak daukaz. Dagon industria be oso banatuta.

BIZILAGUNAK.— Bizkaiko eskualdeetan, biztanlerik gitxiena dauana da. 1975.garrenean km² 114,52 bizilagun ebazan. Sartaldea da jentirik gitxiena daukana. Truzios, Karrantza eta Arzentaletas'en nekazaritza bizi dira eta gitxitzen doaz.

Sortaldera dagozan erriak ugariagoak dira, naiz eta errialde osoaren eunekotan neurritz-beetik gelditu. Galdames meatz-erri bat izan zan eta meatza amaitu danean gitxitzen joan da.

EKONOMIA BIZIBIDEA.— Ekonomia aldetik artu ezkerero zati bi egin daiteke eskualde au:

- Karrantza arana, sartaldea.
- Kadagua arana, sartaldea.

Karrantza arana Santander'en muga aurkitzen da. Nekazari-lurra da. Bere ekonomia-indarra ganadutzatik dator. Landa aundiak daukaz. Aran onetako ganadua Santander'koaren arrazakoa izaten da. Laboreetan artoa eta garia artzen dira, bita patata, ortuari, fruta eta lekadunak be.

Kadagua aranean, badira industriatik eta nekazaritza bizi diran erriak: Güeñes eta Zalla, Balmaseda. Balmaseda'ko jentirik geiena industriatik bizi da. Kadagua arana estua da eta Güeñes eta Zalla erreka-ondoetan bakarrik zabaltzen da. Paper-industria ere ba da emen. Soloetan artoa eta ortuariak artzen dira.

BALMASEDA.— Eskualdeko uriburua Balmaseda da. 7.918 bizilagun dauz. Indar aundia artzeko aukeran dago,

bai industrian eta bai nekazaritzan. Komunikabide onak daukaz.

Balmaseda'ko jendea ugaritzen doa baiña ez bizkorregi. Bertako jendeak Bilborako jokera aundia dau, baiña Kastilla eta Burgoetik naiko etorkin sartzen dira.

Nekazaritzako landak eskeintzen ditu batez be.

Industria-mota asko ditu. Onentxoena metalurgia eta zur-industria.

Politika ta administrazio aldetik ez dira aztutekoak Avellaneda'ko Batzarrek.

GERNIKA-BERMEO ESKUALDEA

Orain aztertzeraz goazen esualdeak uriburu bi dauz: Gernika eta Bermeo. Baiña, kondaira aldetik dauan balio-arengaitik, esualdean ez eze Euskalerrri guztian ere, Gernika da nagusi.

Gernika da euskaldunen erri sakratua. 1366.garrenean sortua da uri lez eta euskaltasunaren kabi biurtu jaku. Españetako erregeak araxe joaten ziran euskal foruak ziñatzera, euskaldunak aske ta burujabe ziranean ezaugarri lez. Antxe izaten alkarturik antolatzen eta zaintzen eben Bizkaiaaren demokrazi-bizitza.

Gernika Aritza aspaldikoa da.

ESKUALDEAREN LUTELESTI INGURUAK.— Eskualde onek itxasoau dauka iparraldetik, Oiz eta Bizkar-gi mendiak egoaldetik. Gernikako itsasagoa egoaldetik iparraldera igarotzen da.

Alderdi bi ditu eskualde onek: Itxasaldea eta legorraldea. Itxasaldean, Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Ibarangelu, Ea eta Elantxobe aurkitzen dira. Legorraldean, osterara, Gernika, Morga, Muxika, Errigoitia, Mendata, Arteaga, Ereño eta Busturia. Ekonomiari begiratu ezkerero ez dago aide aundirik alderdi bi oneitan. Nekazariak dira geien bat, bai bata eta bai bestea.

Komunikabide urriak ditu Gernika-aldeak. Eta erreka badau zer esanik ekonomian. Ez dau bear dauan beste kamiño (bide) ta trenbide.

Tokiz zoragarria da eskualde au eta Bizkaiko atsedeneku biurtu daiteke gerora. Aitagariak dira Mundakako itsastagoaren edertasuna eta andik agertzen diran ikuspegi ederrak eta baita Matxitxako eta Gaztelugatxeko San Juan ere. Sukarrieta alderdi on ederra izatez gaiñera, atsegiña da Laida'ko ondartzagatik.

Ekonomia-aldean nekazaritza dago batez ere. Gernika eta Bermeoko erriak izan ezik besteak gitxitzen edo geldirik dagoz.

JENTETZA.— 1975.garrenean kilometro lauoko 142,8 eban igaritasuna. Eskualde lea urritzen doa. Gernika eta

Bermeok eusteu dautsoe bakarrik. Lurrez Bizkaiaren euneko 12,7 dau, baiña jentetan %3,9 dauka bakarrik.

NEKAZARITZA.– Klimaz, lurrez eta lur-zimurduraz Bizkaiko beste lurak baiño obeak dira nekazaritzarako. Ortuari asko izaten da, bedardiak oparoak dira, basoak aberatsak. Piper eta tomate-lurra da, goistarrak batez be. Kortezubi, Arratzua ta Axangiz onetan alegintzen dira. Gernikako azoka oso ospetsua da ta astelenetan igiten da.

ESKUALDEKO LAGINTZA.– Eskualdeko lagintza industria geiena Gernikan eta Barmion dago.

BERMEO.– Bermioko industria kaian eta arrantzuen oiñarritzen da. Arrain-kontserta dau nagusi: Gatz-emotea, kontserba-lantegiak, otzgaillu industria. Arrantzu-ontzigin-tza ta konponketa be baditu. Bermeok 18.095 biztanle dauz.

GERNIKA.– 17.271 biztanle dauz eta metalkietan lan egiten dauan industria: Erraminta-makiñak, mai-serbitzuak, izkulluak eta abar. Merkatal aldetik indar txikia dau eta turismo aldetik ez da ezer egin: Ez dago hotelik, kirol-lakurik, komunikabide onik. Dana dala, Gernikako Batzar-etxea ta bere Aritza eta Santimamiñe'n (Kortezubi'n) dagon artzulo ospetsuak, Bizkaiaren kondaira-lekuko dira tea Euskalerrriaren biotza.

BILBAO NAGUSIAREN ESKUALDEA

ESKUALDE ONEN EKONOMIA, URI ETA DEMOGRAFIA.– Bilbao'ko eskualdeak Galdakanotik Santurtze-raiño doan lur atal zabal bat artzen dau eta 19 udak ditu bere barruan. Udal onein izenak: Bilbao, Barakaldo, Sestao, Getxo, Portugalete, Leioa, Santurtze, Ortuella, Trapaga Arana, Abanto, Muskiz, Arrigorriaga, Galdakano, Etxebarri, Lezama, Zaratamo, Berango ta Larrabezua.

Demografi aldetik dauan garrantzia onetan dago: Bizkaia osoko euneko larogei biztanle inguru ortxe bizi dirala. Ekonomia ta industria aldetik begiratuta, Bizkaiko industriaren %65 dauka, Onelan: metalurjia industriaren %72, eungintzaren %76,8, ingi eta grafika arteen %85, eta abar.

Biztanle ugaritasunari begira, Bizkaiaren erririk aundie-nak ementxe aurkitzen dira: Bilbao, Barakaldo, Portugalete, Getxo, Santurtze, Basauri, Sestao ta abar.

BILBAO'KO ITXASAGOAREN GARRANTZIA.– Ibaizabal ibaia Bilbao'ra eltzean, itxasagoa asten da. Itxasago onek 14 kilometro dauz arte. Ibaiaren eskubi aldera Bilbao zarra dago ta here zazpi kale entzutetsuek. Sei zubik zearkatzen dabe itxasagoa ta Portugaleten, Bizkaia zubiak. Errontegiko zubia egiten diardue.

Ia industria guztia ibaiaren ezkeraldean dago: baiña Barakaldo ta Sestao industria leku bereziak dira. Dana naastean dago emen: Industriak eta etxe-bizitzak, lantegiak eta erostetxeak. Ibaiaren ezkeraldera dagoz moatzik aberatsenak: Galdames, Abanto ta Zierbena, Ortuella eta Muskiz. Oneik izan dira **BIAKAIKO LABA AUNDIAK** ("Altos Hornos de Vizcaya"), **ONTZIGIN-TOKIAK** ("Astilleros") eta beste, lantegi batzuei lekua izentau dau-tseenak.

ESKUALDEAREN BIZTANLETZA.– Eskualde onek 3.352 biztanle ditu km.²ko. Alde aundia Bizkaiko beste eskualdeekin. Bigarren datorrena Durangokoa da eta 272 biztanle baiño ez dauz km.'ko.

ESKUALDEKO ERRI AUNDIAK.– Bilboz gaiñera aitatzea merezi daben erriak oneixek dira: Barakaldo, Portugalete, Getxo, Santurtze, Basauri eta Sestato.

BARAKALDO.– 118.136 biztanle. Bizkaiko errietan bigarrena. Ikaragerri azten doa. Daikan industria astunak, kimikoak eta aldaketzakoak indar aundia dau. **LABA AUNDIAK** ("Altos Hornos de Vizcaya")k indartu dau Barakaldo'ko industria. Jentea pillaoka etorri da beste lurralde batzutatik.

SESTAO.– Barakaldo'rekin batera, ibaiaren ezker-aldean dagoan industria-kate bat osotzen dau. Erri onen bizi-bidea, izakera eta dana industria eta merkataritzari lotuta dago. Industria-erri bat da oso-osorik. Bere lantegirik aundienak: **LABA AUNDIAK** ("Altos Hornos de Vizcaya"), **OTZIGIN** ("Astilleros"). Babcock Wilcox.

PORTUGALETE.– Lurrez txikia da baña jentez ugarria: 54.014 biztanle. 1900 garrenean 5.182 bakarrik ebazan. Etorkiñak azi dabe. Bizilelua da eta ibaiaren ezker aldean lan egitan dabenak bizi dira or. Lantegi txikiak eta erdi-maillatakoak bakarrik dauz.

BASAURI.– Asko azi da azken urte oneitan, eta arrazoi bigaitik: Komunikabide ederran erdian dagoalako eta industriak indar aundia artu daualako. Basauri'ko industria siderometalurjia ta kimika dira. Firestone (kimika-lantegia), Mercabilbao (Bizkaiko maioristen azoka nagusia) eta abar, Basauriko lurretan dagoz.

SANTURTZE.– Asko ugaritu da 1950 ezkerro, bere industriari esker. Iturri asko ditu ekonomia aldetik: Metalurjia, Kimika, eungintza, zurgintza. Itxas-kai bat be bada eta 50 ontzi baiño geiago dauz ur-azaleko arrantzurako. Erri bizia da: Termo-elektrika zentrakla, birfindegia, kaolekuak, kai-mutur eta kai-buruek, zaborgaillu, petroleontzi, grua eta abar. Guzti orregaitik Bizkaiko errien artean lenen-goetariko lez artu dagikegu.

GETXO.– Bizitzeko lekua batez ere. Auzo ezbaridiñak ditu: Neguri, aberatsen bizilelua, txalet ugariz josita, Areeta eta Algorta; bizilekuak oneik be, baiña erdi maillako jentearentzat.

BILBAO ESKUALDEAREN ARAZOAK.– Arazorik larrienak azpi-estrukturatik datoz:

– Ez dago bear aiña komunikabide. Ekonomia eta industriari hegira, geiago bear litzateke.

– Ibaiaren alderdi biak errez, eta askar lotzeko zubi gei-go bear litzatekez.

– Ez dau egiatzko uri ta juketarik: Bizilekuak eta industriak edozein lokutan ikusten dira eta, atsedentoki gitxi gaiñera.

– Bilbao'ko kutsadura aundiegia da eta osasunerako arriskutsua.

BAKIO'KO EUSKERA (I)

BAKIO'KO IZKUNTZA INGURUNEA BIRRESKURATU, EUSKALDUNDU ETA ARAUPETUTEKO EGITASMO-AURRE OROKORRA

1.– Itzaurrea

2.– Toponimia Bakion.

- 2.1.– Toponimia moetak.
- 2.2.– Leku izenen batuketea.
- 2.3.– Toponimiaren normalkuntzea.
- 2.4.– Toponiamiari buruzko oinarritzko erispideak.

3.– Seinalapena: bide-erakiusleak eta bestelango iragarki edo argibide publiko iraunkorrak

- 3.1.– Seinalapena egiteko erispide orokorrak.
- 3.2.– Izkuntza politikeari erispide orokorrak.
- 3.3.– Izkuntza ontasuna.
- 3.4.– Seinalapena legearen aldetik.

4.– Izkuntza erabilerarako beste erispide batzuk

- 4.1.– Erainkuntzen izenak.
- 4.2.– Kale, ibilbide, zumardi, bide, etorbide, enparantza, mailadi, iturri eta abarren izenak.
- 4.3.– Barruko seinalakuntzea edo errotulaketea.
- 4.4.– Publizitatea.

5.– Borondate politikoa.

6.– Diru-baliabideak.

7.– Epeak.

8.– Jarraipen Batzordea.

9.– Ekimen pribatua.

10.– Egitasmoaren zabalkundea.

11.– Beste egitasmo antzekoen barri.

12.– Elebitasunaren erabilera.

1.– Itzaurrea.

Gizarte egoera barriak (erbesteko biztanle barri geiago, industriaguneak, etxebizitza eta taberna geiago...) gurelako erri baten, izkuntza egoera aldatuko deusku, euskerearen kalterako aldatu be. Jende barria, erdaldun geiago erakarten daualako, atan be.

Izan be, Bakion turismoa ez da inoiz euskerearen laguntzarako izan. Adibideak, zioritxarrez, eurrez daukaguz bertan zein gure inguruan be: Algorta, Getxo, Sopela, Gaminiz, Gorniz, Armintza, Mundaka, zer esanik ez, Bakio bera be. Era batera edo bestera, Bakio berezko nortasuna, nortasun euskalduna, jagon bearrekoa da.

Jagon ezeze, barriro nagusitu eragin be. Onetan Bakio Udalak here jokabidea sendoro euskerearen aldeko postura egitera zuzendu bear leuke. Turismo eta euskerearen normalkuntzearen arteko dendu baikorra lortu aal izateko.

Euskerearen egoera ete Bakio birreuskaldundu bearraz jabetuazo bear deutsegu errira etorritako erdaldunei. Au erriko euskaldunok bakarrik lortu daikegu. Ingurukoei geuk erakutsi bear deutsegu euskaldun izateak merezi dauala. Euskereaz irabazi egingo dabela. Bakio here osotasunean eta era artezean ezagututeko aukerea izango dabela.

Bakio erri euskalduna da oraindikaren eta. Euskaldun nortasundun lez ezagutu eragin bear deutsegu kanpoko zein barruko erdaldunei. Euskeraz egin eta bizi garan erria garala ezagutuazo.

Bakio udalerrri euskalduna danaren aldetik, euskere arlo sozialera zabaldutea, barruan zein kanpoan, dogu elburu. Euskeraz bizitea, atan be. Bakio erri euskalduna euskerearentzako garrantzitsua da. Bakio bizirik eta euskaldun izaten jarraitu daian, lagundu bear deusogu.

Euskal udalek, bada, euskerearen birreskurapenean daben erantzukizuna gero eta garrantzitsuagoa da, batetik, euskerearen kalitatea bertan gordeten dabela eta bestetik, euskereak aurrera egiteko lurralde euskalduna bear daualako.

Bakio euskaldunok, biztanleen geiengoak, gizatalde etnolinguistikoko lez garapen osoa lortuteko, euskerearen normalkuntzea bearrezkoa da udalerrian. Onetarako plangintza zeatza azurmamindu bear da.

Plangintza onek euskerearen “inguru giroa”, arean da, begien aurreko ingurunea gogotan artu bear dau.

Gizarte-ingurunearen eragina nabarmendu bear dogu.

Izkuntzearen aldeko jokabideak garatu bear doguz eta izkuntzearen erabilerea errotuteko bear-bearrezkoa deritxogu begien aurreko ingurunea euskalduntetari. Izkuntzearen aldeko jokabideok garatutea agintari polikoen erantzukizuna da. Erri borondatea ekin-tza biurtu bear dabe agintariok.

Begien aurreko izkuntza ingurunea. Idatzita agertuten diran leku izen, iragarki, idazkun edo errotulu, oar, izenburu, deitura, adierazgai eta abarrek “begien aurreko izkuntza ingurunea” osotuten dabe.

Begien aurreko izkuntza ingurunea euskeraz janztea da Udalak sortu eta bultzatu bearke leuken Bakioko Euskerearen Normalkuntza-Egitasmoaren zati garrantzitsua.

Euskerearen erabilerea indartuteko baldintzatat artuta dago begien aurreko ingurunea euskalduntzea. Bearrezko baldintza dogu. Baldintza ori gure udalerriko lurralde osoan ezarri bear dogu. Izkuntzea entzun ezeze, ikusi be egin bear da-eta.

Bakion euskerea izkuntza nagusia izatetik izkuntza artzailera igaro da. Erdaldunen eragina Bakioko euskaldungoan barru-barruraino sartu da, bakiotarren bere-berezko euskaldun mundu ori itxuragetu artean.

Mundu ori birreskuratu eta indartuteko bideak imini bear doguz, eta orretariko bat, toponimia birreskuratu eta bide-erakusleak ta kaleko argibideak, euskalduntzea da. Baina berau leen aitaturako ekimen orokor, plangintza orokor aren zati bat baino ez da. Elburu nagusiak orretarako, barriz, argi be argi euki bear doguz:

- Euskerearen erabilera idatziaren zati garrantzitsua ziurtatutea.
 - Euskerearen eguneroko erabilera egirikoa eta sozial duina bermatutea.
 - Erabilera ori zabaldutea.
 - Izkuntzearen jatortasuna eta aberastasuna jago-tea.
 - Erriaren ondareari buruzko argibideak emotea (toponimia).
 - Euskeraz biziko dan erriaren aukerak sendotutea.
- Ori, guzti ori, euskerearen aldeko Izkuntza-Normalkuntza Egitasmoaren barruan dagoan ezker, beronen osterantzeko beste arlo batzuetako neurriak aregaz alkar osogarriak dira. Arlo orretan egin bear dogun aalegin andi ori ankamotz, indarge eta eraginge lotu ez daiten gura badogu, beintzat.

Ez bai barik, onelango neurriak euskaldunen kontzientziak sensibilizatuteko erarik edo biderik onenarikoak dirala, euskerearen aldeko erabilereari bultzakada ona egingo deutso.

Euskerearen erabilgarritasun eta balioaren kontzientzia irabazteko beren-beregikoak dira neurriok. Berbadunengan, erritarrengan eragin bereziak lortu daikezan euskalduntze bideak landu bear doguz. Ametik sortu leiteken eragin biderkatzaileari onurea atara bear deutsogu.

IZKUNTZA POLITIKEA BEGIEN AURREKO INGURUNE LINGUISTIKOARI JAGOKONEZ

Euskerearen egoereak normalkuntza-bidean eskatuten dauan aalegina egitea bearrezkoa da. Euskerearen normalkuntzan garrantzi aundia dauke Udalaren jokabideak eta borondateak. Ezin leiteke bitarteko urri normalkuntzarako aurre ikusi, are gitxiago, diru jatsierak egin.

Normalkuntza bidea ziurtatuteko, izkuntza politikeak atzerarik bako gitxieneko batzuk bete bear dauz. Onelango erri mailako egitasmoa, bada, urrengo baldintzenpean oinarritu bear dogu:

- Plangintza orokorrean egituratuta egotea.
- Baliabide ekonomiko ugariz babestua izatea.
- Udalerriko lurralde osorako egitasmoa izatea.
- Ekimen pribatua bultzatutea, politika zein diruaren aldetik.

Azken elburua euskerearen normalkuntzea da. Izkuntzearen birreskurapena erabileran (idatzian eta agozkoan) oinarrituten da, erakunde publiko zein ekimen pribatuen aaleginetan.

Aaleginok euron bidetik ondo eroateko udalerrimailan neurri politikoak artutea bearrezkoa da. Neurriok izkuntza-ingurunerako azpi-plangintza baten barruan batu leitekez. Azpi-plangintza orrek oinarriko baldintzak bete bear dauz:

- *edegia*: Ekimenaren bearrizan eta egoera barrietara edegita, emoitzak neurtu ondoren, bearrezkoak diran egokitzapenak egin aal izateko.
- *malgua*: Bakioko tokian tokiko berezitasunetara doitu eta alan, komenigarri danean, berarizko egitarauak eratu aal izateko.
- *iraunkorra*: Indarrean iminitako ekintzek denporan iraunkorrak izan bear dabe, bein-beinekotasuna asikeratik ezabatu aal izateko.
- *zeatza*: Iraunkortasunagaz bat egiten dauan bal-

ALBISTEAK

dintza onek ikerketa lan sakon eta benetakoa eskatuten dau, iraunkortasun eta eraginkortasuna denporan bermatu aal izateko.

—*osoa*: Elburuak, leentasunak, eraketea, aurrekontu egokia, baliabideak eta ebaluazino tresnak gogotan artu aal izateko.

—*epekatua*: Azken elbururaino mailaka igongo dau, elburuok egutegi baten arabera lortu aal izateko.

—*bateratzailea*: Aalegin guztiak norabide berean eroan aal izateko.

Bearrezkoa da, beste aldetik, erritaren eritxiak baturea be. Areen oarrak, arregureak, esondapenak artu, aztertu eta bideratu bear leukez Udalak.

2.— Toponimia Bakion

Toponimia erri baten Kultura Ondarearen oinarriko osogarria da, beste osogarriei estu-estu lotuta eta alkarregazko menpekotasunean dago.

Toponimia ingurunearen lekukoa da. Gure arbasoen izkuntza, oitura eta bizikeren lekukoa. Gure gizartean gizaldietan sakon-sakon errotuta dago. Ingurune naturalagazko zein enparauko gizakiakazko artu-emonetan izkuntzeak emondako urtenbidea dogu. Askotan, atalkatuta agertu izan jaku, ingurueneak berak emon eta bideratutako bizi moduak zerikusi arteza dauala.

Ingurunearen giza-estalkitzat jo geinke toponimia. Gure errian ugari-ugaria da. Lurrazalaren izakereagaz zerikusi artez-arteza dau, euki be. Inoiz bete izan dauazan eginbearrakaz lotuta agertuten jaku. Sarritan, gizaldietan zear izandako jazokera eta siniskeriaz igurdita.

Bakioko euskerearen ondasuna edo altxorra, gure aurretikoez geuri itzitakoa, atan be, geure-geurea dogu. Eurek izkuntzea igorteko egindako aalegina gogoan eukitekoa da. Gogoan euki ezeze, urrengo belaudaldientzako leenaldiaren lekukoa bizirik lotu daiten be bermatu bear dogu.

Alan da ze, guztion artean jagon bearreko altxorra dogu.

Erri izaten jarraitu gura badogu, beintzat, bertoko toponimiari eutsi ezkerroan, bertoko nortasunari eusten deutzogu eta etorkizunerako ainbat eta ainbat leku izen eta deitura gorde aal izando doguz.

Aberastasun bakarra da, bakuna, beraren ezaugarriak eta guzti, Bakiok munduan bakarrik daukana, bera langorik beste inon ez dagoana, bere-berea dau Bakiok eta.

Bakioko toponimia ofizializatu bear dogu. Orretarako, Udalak azterketa eta batuketa zeatza egiteko agindua eta arauak emon bearke leukez. Lekuizenak batuteko eta jagoteko bearrizana gura ta gurazkoa da. Gizaldietako bilakaera istorikoez eragindako okerkeriak zuzendu bearra dago.

Jatorrizko izen errikoi euskaldunak birreskuratuz bateraz, kolonizazino izenak errotik kendu, ezabatu bear doguz. Bakioren nortasuna, nortasun euskalduna izan dalako eta dalako, oraindikarren be. Erritar zein erbestetarrak Bakioren nortasunaz baliatu eta bizi daitezcan. Nortasun orreri euren begirunea erakutsi daitsoen. Bakioko nortasunari eutsi ezkerroan, euskal nortasunari eusten deutzogu, bide batez berau sendotuz.

Ainbat bear dago, oraindikarren, egiteko. Ainbat eta ainbat dira zelan edo alan zentzubakokeria eta ezjakintasuna dirala eta, itxuraldatutako zein errotik aldatuta dagozan toponimo edo leku izenak.

Gure-gureak doguzan leku izenak gurean euskeraz imini eta erabili bear doguz. Amaikatu aalegin egin bearke dogu erregintzan gabilzanok aberastasun on birreskuratuz, argitu, zuzendu, euskeratu, argitaratu eta bete eragiteko.

2.1.— Toponimia moetak

A — Toponima aundia:

- * itsasoa (BIZKAIKO ITSASOA)
- * erbesteko izenak (ARMINTZA, BILBO, BERMEO, EMERANDO, LARRAURI, MUNGIA...)
- * mendiak (JATA, GARBOLA, TOLLO, BURGUA, LOPARRIA, ARBALLO...)

B — Toponimia txikia:

- * mendilepoak (KOPALAGANE, AMESTI, LARRASKO, JATABE-IÑERDI, GAUBIETA, PORTUME...)
- * basoak (ARTATXU...)
- * soloak (URIZARRETA, SAGARLANDA, LAPIKOLURRA, ERMITAONDO, KOBIA,...)
- * trokak (LANDABARRENA, INPERNUKO ERREKEA, AKAGA, KARRAKOLA...)
- * errekek (OJAORTA, AKAGA, ZARRAGA, OXIÑA...)
- * adar-errekek (MAKUENA, OXIÑA, EITAZAGA...)

- * aretzea (AREAGA)
- * atxak (ARRIBOLA, ASKADA, BIRJILANDAPE, KURUTZEKO ATXA, ANDIÑO, GAUBIETA, TALAIAPE, LURBARRI, SARRAKOA...)
- * iturriak (MAKATZEKO ITURRIA,...)
- * ikuspegiak (KARABIA...)
- * auzoak (URKIZAURRALDE, BENTALDE, GOITISOLOALDE, URUAUZO...)
- * etxe eta baserriak (GOITISOLO, GAUBEKA, URIBARRI, IBARRA, MUXIKENA, TABERNAZAR...)
- * dorretxeak (TORREZAR, IBARRA, OLEA...)
- * jauregiak (ELEXPURU, ORMAZA, JAUREGIZARRA...)
- * errotrak (ERROTABARRI, BEKORROTA, EITZAGA, URKIZA, URETA, MINITUA...)
- * olak (URETA, OLABARRI, GOIKOLEA, OLATXU, BENGOLEA, ONDARRA...)
- * eleizak (GOIKO ELEIZEA, BEEKO ELEIZEA)
- * baseleizak (DONIENE, DONEMARTINE...)
- * kaleak (KALE NAGUSIA...)
- * bideak (URIBARRIKO BIDEA, MENDIALDEKO BIDEA...)
- * etorbideak
- * mailadiak (LAPIKO LURREKO MAILAK, KURTZIPERIKO MAILAK...)
- * aparkalekuak (AREAGA, PORTUONDO...)
- * zubiak (ONDARREKO ZUBIA, OLASKOETXEKO ZUBIA, ZINTZIRIKO ZUBIA...)
- * enparantzak (BENTALDEKO ENPARANTZEA, PORTUONDOKO ENPARANTZEA)
- * arrobiak (OIETA...)
- * tokiak, inguruneak (TXAKURZULO, URZABAL, ANDIÑO, BIRJILANDA, TALAIAPE, LURBARRI, UREDARIO, PORTUME, MUSTEGI, ESTILLETA, ESTANKOALDE, ARISTITXU, BASASORDA, ARRIBALANE, SARRAKOA, KOPALAGANE...)
- * kurutzeak (OIAKURUTZEA, LARRESKIÑEKO KURUTZEA, ATXULOKO KURUTZEA...)

2.2.— Leku izenen batuketea

Erriko leku izenen batuketa orokorra egin bear

dogu. Orretarako, lanbide orretan espezializatutako ikastegi edo erakundeen (ETNIKER-LABAYRU IKASTEGIA, EUSKO IKASKUNTZA, DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO DEIKER INSTITUTOA) eskuetan itzi bear

litzake batuketa bearra. Bear aundi au aurrera atarateko bekadunak kontratatu leitekez (euska

l filologiadunak, eskaldunak, arlo onetan jakitunak edo ikasiak, aal bada bakiotarrak). Batuketa orokor on egiteko iturri ezbardinetara jo bearra dago, arean da:

Zaarrei eta osterantzeko erritarrei itaunduz eta euren agoetatik urtendako leku izenak artuz.

Batzuk eta besteek esandakoak alkar alderatuz. (Arik arinen egin bearreko lana da, zaarrok il baino leen egin be).

Etxeetan egin leitekezan jaubego paperetan bagiratz.

Gernikako Epaitegi eta Jaubego-Etxearen agiritegietan ikertuz.

Eleizako agiritegietan arakatzuz, (Bizkaiko zein Bakiokoan).

Liburutegi eta agiritegietan oneri buruz egin leitekezan argibide guztiak batuz. Istoria eta geografari buruzko liburu eta agiritan (Aldundiko zein beste erakundeetako liburutegietan). (XVIII. gizaldiko fogerazinoak,...).

Dagozan kartografia agiritegietan begiratzuz (Aldundikoan, Eusko Jaurlaritzakoan, Espainakoan).

Arlo onetan beste batzuk egindako lanak bagiratzuz.

Beste argibide-iturri batzuetara joaz.

Leku izenen batuketa orokor on egin ostein, leku izenok orraztu eta, Bakioko euskera ereduari jarraituz, era literarioan biurtu bear dira. (e.b.: LARROI — LARRAURI, ITXAS — ETITZAGA/IITZAGA).

2.3.— Toponimiaren normalkuntzea

Izkuntza normalkuntzearen eremuan here tokia dauan gaia da toponimiaren normalkuntzea. Izan be, leku izenak bideetako iragarkietan ezeze, testu-liburuetan, edabideetan, agiri-idaztietan, mapetan eta abar luzean be egunean-egunean erabilten doguz eta.

Bakioko toponimiaren *Normalkuntza Egitasmoa* sortu eta indarren jarri bear da. Orretarako, jarraipen batzordea sortutea be bearrezkoa da, baita gorengo erakundeakazko itzarmenak (Bizkaiko Foru Aldun-

ALBISTEAK

dia, Eusko Jaurlaritza, Eropako Batasuna) izenpetutea be.

Normalkuntza bearretarako mailak zeaztu bear dira, unengo oneexek dirala:

- 1.—Dokumentazino lana.
- 2.—Kanpo batuketea.
- 3.—Zertzeladak grabatutea.
- 4.—Normalkuntza geografikoa.
- 5.—Izkuntza normalkuntzea.
- 6.—Azken birikusketea.

Azterketa eta batuketa sakona egin bear dira toponimia arlo onetan. Normalkuntza lana egin ostean, toponimia kalean, zein idaztietan, zein eskola barruan zabaldu, erabili eta irakatsi bear da urrenez unen.

2.4.— *Toponiamiari buruzko oinarritzko erispideak*

Leku izenak bear dan eran erabilteko erispideak zeaztu eta bete eragin bear doguz. Gure eniaren leku izenak euskaldunak dira betidanik. Arlo onetan zeaztasunez eta ardurabakokerietan sartu barik jokatu bear dogu. Bakio euskalduna dalako eta izan bear daualako! Erispideotan, bada, urrengo oneexek aitatu geinkez:

Agaitik edo besteagaitik, gizalditan zear ostenduz joan jakuzan euskerazko leku izen istorikoak erabilteko birreskuratu bear doguz (MIN-TUA — MINITUA, SAN JUAN — GAZTELU-GATXE, ESTEPONA — OJAORTAKO ERREKEA, URIZARRETA — ORUEZARRETA).

Erderearen kolonizazinigaitik galdutako edo erdaldundutako euskal leku izenak bineskuratu eta erabili bear doguz (PEÑAS ROJAS — ASKADA, ENEPERI — URIZARRETA, EL CALERO — KARABIA, EL CABO — BIRJILANDAPE). Askotan, oneetan erabilten diran idazkera eta joskera arrotzak baztertu bear doguz.

Bai euskeraz, bai erderazko idaztietan, euskerazko leku izenak euskeraz eta euskal idazkeraz idatziko dira. Beraz, euskal izen guztiak euskerazko idazkeraz imini bear dira, lekuizen andiak zein txikiak. Era bakarrean erabiliz. Udalak Bakioko leku izenak erabiltea dakarren edozertarako baimenak emoterakoan, eskatu beaneko baldintzetariko bat izan bear dau orrek. Onetan legeak erri bakoxtari bidea zabalduen deutso, erriak berak gura dauan erara enia atonduteko.

— Toponimian elebitasuna erabiltea ezabatu bear da. Elebitasun faltsu on gaindituteko sasoia da eta, euskera benetan normalduz. Euskereak gure erriko errepide, bide eta bazterretako bide-iragarkietan bear dauan tokia emon eta duintasunez erabili bear dogu.

Izen bi (BILBO/BILBAO) gauza bera esateko eukiteak itxura txarra dakar eta. Onetan be, bate-ratasuna lortu bear dogu eta euskaldunok darabilgun erara urre-ratu (BILBO oneristeko), beste-ak bazter-tuz. Beste orrenbeste Bakioko ainbat leku izen askogaz be.

— Toki edo gune berezi edo barrien leku izenak euskeraz imini. Dala kale, dala enparantza, dala zumardi, dala ibilbide, etorbide, dala bide nagusi, dala ituni, eta abar izendatuteko bakoxtari jagokon erriko leku izena aukeratu eta imini bear deutsogu. Aurkitu ezean, orduan, erriko kokapenez, jagokon leku izenen bat aukeratu eta imini bear deutsogu (baserri, solo, baso, toki,...izenak, ain zuzen). Galdutako leku izen istorikoak be orretarako erabili daitekez. (ARESTI, OLEA, IBARRA, URKIZA, AGIRRE, ERREMENTERIA, MARKOENA, OTSOATEGI, BESONDONA, ZUBIETA, BUTRONETXE, OSTIGA, BENGOURIA, ESPARRONDO, GABANTXO, GABAONDO, ERROTAONDO, ITXIBIA, KORTAETA, MAKUZARRE, MINITUA, MOTZENA (BENTA), ORUEZARRETA...).

— Orokonean, leengo arlook izendatuteko leku-izenak erabili bear doguz, bestelangoei gatxeritxiz. Bada, tokian-tokiko lekuizena izendatuteko erabiliko dogu.

— Euskerearen erabilera turistiko-folklorikoa ezabatu bear dogu, euskerearen erabilera duinaren bidez eniaren nortasunari eutsi gura badeutsogu beintzat.

Euskereari leku duina eskeini bear deutsogu eta, eniko gomutapen istorikoa bir-eskuratu daigun. Bertoko lekuizenean batuketa-bir-eskurapen zeatza eta sakona lortu bear dogu, erdaldundutako izenak kendu eta jatorritzko euskerazkoei leentasuna eta bidea emon.

— Idazkera mailan EUSKALTZAINDIAko edota ETNIKER-LABAYRU IKASTEGIAko izkuntza onuak eta eritxiak gogotan artuko dira.

INIAKI MARTIARTU

ITXAS-ALDEREN BARRIAK

ITURRIAN lan koreografikoa



1997 urterako proiektu barri bat dogu ITXAS-ALDEko neska nagusien taldekoek. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak eskeini deuskun diru-laguntzari esker, aurkeztuko dogu "Iturrian" izeneko lan koreografikoa.

Ori dala eta, diruz lagundutako koreografia lana gauzatzeko konpromezua artu dogu eta jo ta ke diardugu datoren udabarrirako atarateko asmoaz.

Lan onen bidez adierazo gura dogun irudia XVIII. mendeko emakumearena da. Buru gainean ur-suilak garraiatuz, iturriaren inguruan sortu daiteken giroa irudikatu nai dogu.

Musikaren aldetik, Enrike Zelaiaren "Bizkaia" izeneko diskan "Kitolis" deritxon musika bildumatik artu dogu doinua (L. Aranbururena).

Gustora gabiltz prestakuntza onetan eta dana ondo badoa, udarako aurkeztuko deusagu Bakioko erriari, gure, dantza taldearen, 25. urteurrena ospatuko dogun bitartean.

ITXAS-ALDE
Euskal Kultura Taldea

Erremintadun euskal dantzak

Dantza era oneek, bai talde eta bai dantzen aldetik, ugaritasuna agertzen dabe.

Euskal dantzetan erabilten diran erremintak oneexek dira: ezpata, makil eta arkuak, baina areen artean makila txikiekaz egiten diranak dira nagusi.

Dantza mota orreetan, batzuetan buruzagia agertzen da, beste batzuetan katximorroa, Otsagin boboa, Erriberan pertsonai ezbardinak, eta ia Euskalerrri osoan zaagi-dantzan jotzen dan zaagia.

Durangaldeko Dantzari Dantzan eta Xemeingo dantzan agertzen dira ezpatak, askotan dantzari berari izena emonez, esate baterako, "ezpata-jokoak" bai nagusia zein txikia.

Gipuzkoako Brokel-dantzetan brokel edo ezkutua eta makil txiki bana erabilten dabez. Bereziak, benetan!

Arkuekaz be egiten dira dantzak, Oñatiko Korpuzti egunean eta Lanestosan, aaztu barik zuaitz edo makilaren inguruan egiten diran zinta batzeak.

Dantza guzti oneetako batzuk, gainera, erriak omendu gura dauanaren aurrean dantzatzen dira.

Beraz, ikusi daitekenez, ainbat erreminta erabilten da euskal dantzen inguruan, beroneen edertasuna anditzeko, ain zuzen.

Unai Beitia (Artzakoa)
ITXAS-ALDEko dantzaria



*Iurreta (1982).
DANTZARIAK,
1988 abendua.*



Betidanik.

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK